

## VISCA LA REPÚBLICA!

Catalunyako Parlamentuak Errepublika Katalanaren independentzia erabakitzeko autodeterminaziorako erreferendumaren legea onartu, eta Generalitateko Gobernuak hura egiteko dekretua sinatu zuen atzo. **HERRITAR BATASUNAK** honako gogoeta hauek helarazi nahi dizkie Euskal Herriari, Catalunyako Herriari, eta oro har interesa duen edonori:

Espainiako Erresuman, zapal dutako nazio eta herritar guztion borrokaz, Inperio Espainolaren garaietatik Herrien aberastasun zein etorkizunaren jaun eta jabe izan den oligarkiaren botere absolutua ahultzen hasten den aldi bakoitzean, kontraesan nazional eta sozialen areagotzearen ondorioz, haustura demokratikoa abiatzen den bakoitzean, geure malko, odol eta izerdiz, inperialismo espainolistaren menpe bizi garen Herriok askatasuna hurbil ikusten dugun bakoitzean, **Errepublika** aldarrikatzen da beti.

Horrela gertatu zen XIX. mendean, 1873an, Espainiako I. Errepublikarekin, eta, berriz ere, XX. mendean, 1931an, Espainiako II. Errepublikarekin. Eta Espainia Beltzaren buru eta bihotza den oligarkia espainolistaren erreakzioa berbera izan da beti: Monarkia berriz bortizkeriaz inposatzea, eta harekin batera, mendez mendez luzatu den zapalkuntza globala: patriarkatua, kapitalismoa, penintsula eta kolonietako Nazio eta Herrien konkista eta etnozidua, inperialismoa, kolonialismoa, nazional-katolizismoa, arrazismoa, jabetza komunalen eta herri ondasunen pribatizazioak... Mendez mendeko miseria eta esplotazio etengabea, lurjabe aristokratiko, militar kolpista, elizgizon erreakzionario, bankari ustel, enpresario esplotatzaile, eta oligarkiaren gainontzeko bizkarroien eskutik.

Horrela gertatu zen 1874an, I. Berrezarkuntza monarkikoa estatu kolpe baten bidez inposatu zenean, eta 1975ean, Francisco Franco jeneralaren ia 40 urteko diktadura faxistaren genozidua eta estatu terrorismoa jasan ondoren, bere aginduz, eta berriz ere estatu kolpe baten mehatxua gupidagabeki erabiliz, II. Berrezarkuntza nagusitu zenean, zeina bataiatu baitzuten "*Trantsizio Demokratikoa*", bere benetako izaera neofrankista, kapitalista, patriarkal, etnozida, nazional-katoliko, inperialista eta erreakzionarioa ezkutatu eta mozarrotu nahian.



# hb herritar batasuna

Hauxe da klase borrokaren dinamikaren ardatza Estatu Espainolean, behin eta berriz errepikatzen dena, garaipenaren giltza erakusten diguna. Estatu Espainolaren mende bizi garen Nazio eta Herri Langile guztiontzat, Monarkia, eta azken 300 urteotan, errege borboia, beti izan da zoritxarraren sinonimoa. **Errepublika**, berriz, haustura demokratikoaren hasierarena. Borrokarena. Itxaropenarena. Askapen nazional eta sozialarena.

Berrogei urte luzez luzatu da 1975ean, Franco hil eta bi egunetara abiatu zen II. Berrezarkuntza monarkiko borboitar hau, nazionalista burges (PNV, CiU ...) eta erreformisten (PSOE, PCE ...) ezinbesteko kolaborazioarekin. Horretarako ezarri zuten indarrean 1978ko Konstituzioa. Bainan erregimen neofrankista krisi larrian sartu da azken urteotan. Horren adibide argiena izan da Francoren oinordeko zuzena izan zen Juan Carlos de Borbónen abdikazio behartua. Horregatik aipatzen digute behin eta berriz "*Bigarren Trantsizioa*", betiko oligarkia espainolistaren botere sistema beste berrogei urtez bizirik mantentzeko. Dena aldatu, deus ere alda ez dadin. Berriz ere!

Testuinguru honetan kokatzen dugu azken urteotako Catalunyan garatu den prozesu independentista, Errepublika Katalanaren sorrera eta bereziki urriaren 1eko erreferenduma. Neofrankismoaren amaieraren hasiera, eta beraz, 1973-1981 urteetan lortu ez genuen haustura demokratikoaren abiatzea. Askatasun nazional eta soziala azkenean lortzeko itxaropena. Horregatik, **HERRITAR BATASUNA**ren ustez, Errepublika Katalan independentearen sorrerak garrantzi handia hartzen du, ez bakarrik Herri Langile Katalanarentzat, baizik eta Estatu Espainolaren uztarripean bizi garen Nazio eta langile guztiontzat ere. Bereziki Euskal Herri Langilearentzat. Eta berezikiago euskal abertzale eta sozialista guztiontzat

Bartzelona, Cambrils eta Alcanarreko gertaerei buruzko agirian esaten genuen bezala: "*Interes politiko zikin eta ilun asko jarriko dira dantzan hurrengo ordu, egun eta asteetan, Herri Langile Katalanaren askapen borroka nazional eta soziala ahuldu, nahasi eta desbideratu nahian. (...) Catalunyan etsaiak hortzez eta haginez saiatuko dira aukeraz balliatzen, Independentziaren aldeko mugimendua erasotzeko, eta urriaren 1eko autodeterminazioaren erreferenduma kaltetzeko, bereziki nazionalismo espainolista eta bere satellite guztiak.*" Uste dugu azken asteek ederki frogatu dutela guk agirian esandakoa: "*Horrelako atentatu odoltsu eta errukigabeak gertatzen direnean, klase borrokak bere indar, sakontasun eta konplexutasun osoa agertzen du*" Izan ere, klase borrokaren ikuspegitik, bereziki Euskal Nazioaren ikuspegitik, eta nagusiki Euskal Langileriaaren ikuspegitik aztertu nahi baitugu Catalunyan gertatzen ari dena.



# hb herritar batasuna

Gure mugimenduak, HERRITAR BATASUNAK, alegia, klase izaera duelako. Askapen nazionala, soziala eta feminista Langile Klasearen interesen arabera antolatzen ditugulako.

Errepublika izan den beti esperantzaren sinonimoa Estatu Espainoleko Nazio eta Herri Langile guztientzat. **Bainan ez nolanhiko Errepublika**. Klase borrokan murgilduta dagoen gizarte batean, ez dago kontzeptu neutrorik, gertaera guztiek klase izaera dute. Kasu honetan, beti galdetu behar dugu: kapitalisten aldeko **Errepublika Burgesa** ala langileon aldeko **Errepublika Sozialista**? Gure aukera garbia da: **Errepublika Sozialista** eta **Feministaren** alde gaude, buruz eta bihotzez. Hemen eta Catalunyan. Horregatik geure elkartasun militante osoa adierazi nahi diogu Nazio Katalanari. Bereziki Herri Langile Katalanari eta bere klase antolakunde abertzale eta iraultzaile guztiei. Urriaren 1eko erreferendumean Catalunyak haustura demokratikoaren aldeko urrats garrantzitsua egingen du, eta Estatu Espainoleko Nazioetako Herri Langile guztiok geure indar guztiez lagundu eta babestu behar dugu ekimen hau, kalean mobilizatuz eta borrokatuz.

Catalunyako Herri Langilearen historian, bere askapen nazional eta sozialaren bidean, une erabakigarri asko izan dira. Besteak beste: 1640an, "La Guerra dels Segadors", eta 1641eko urtarrilaren 17an, Lehen Errepublika Katalanaren aldarrikapena, zeinek izugarri erraztu baitzuten Portugalen independentzia. 1700-1715 urteetan, Herrialde Katalan guztiek, Aragoirekin batera, gerra egin zuten Felipe V. errege borboiaren aurka, beren eskubide eta askatasun nazionalen alde. 1873an I. Errepublika Espainolaren garaian, *Estat Catalá* aldarrikatu zen. 1909an, aldiz, greba orokorra egin zuen Herri Langile Katalanak, Marokoko gerra kolonialaren aurka. Francesc Ferrer i Guàrdia intelektual anarkista zegoen errepresioak hildako lagun askoren artean. 1917an, Catalunyako Langileriak Greba Orokor Iraultzailean parte hartze handia izan zuen. 1931ko apirilaren 14an, Francesc Maciák hitz hauek esan zituen: « *proclamo la República catalana a l'espera que els altres pobles d'Espanya es constitueixin com a Repúbliques, per formar la Confederació Ibèrica* ». Zorigaitzez, Espainiako II. Errepublikak ez zituen ezagutu nazio zapalduen eskubideak, eta 1934ko urriaren 6an Generalitateko lehendakari Lluís Companyssek berriz ere *Estat Catalá* aldarrikatu behar izan zuen. II. Errepublika Espainoleko Gobernuaren aginduz, Batet jeneral espainolak gerra egoera deklaratu zuen Catalunyan, errepresio bortitza burutuz, 74 hildako eta 3.000 atxilotu baino gehiago eraginez.

# hb herritar batasuna

1936-1939an Catalunyako Herri Langileak Francoren faxismo nazional-katolikoaren aurka gerra egin zuen modu heroikoan, gainontzeko Herri Langileekin batera. Eta hemen eta orain, 2017an, Errepublika Katalan independentea aldarrikatzera doa, urriaren 1eko erreferendumaren bidez. Askatasunaren bide luzea

Egoera zailetan, katalanek bere kulturaren bi ezaugarri baliatu izan dituzte, "*el seny*" eta "*la rauxa*", zentzua eta oldarra. Guk, Felix Likiniano anarkistaren hitzak erabiliz, eta Ezker Abertzaleak bere egin zuen esamoldeaz baliatuz, "*bietan jarrai*" esango genieke adiskide katalanei, kontraesan dialektiko honen bi polo hauek aldi berean erabiltzeko, zentzuz oldartuz, egiten ari diren bezala. Asko dugu ikasteko elkarrengandik.

**HERRITAR BATASUNA**k bere elkartasun militante osoa berresten dio Catalunyako Herri Langileari eta bere klase antolakunde abertzale eta iraultzaile guztiei. Gure mugimenduko delegazio bat joanen da Bartzelonara, irailaren 11ko Diadaren ekitaldietara, solidaritate internazionalista adieraztera. Eta dei egiten diogu Euskal Herri Langileari bere indar guztiez elkartasuna adierazteko Catalunyari, ahal dituen tresna eta baliabide oroz, bereziki kalean mobilizatuz, herritar katalanekin batera. Ez dugu ilusio faltsurik egin behar. Historiak larrutik irakatsi digu Espainiako Erresuma eta bere oligarkia nolakoa den eta nola jokutzen duen. Beti esan digute dena lortu ahal zela "*biolentziarik gabe, demokratikoki*". Ikusiko dugu... Borrokak bakarrik askatuko ditu Euskal Herria, Catalunya eta gainontzeko nazio zapaldu guztiak. Borrokak bakarrik askatuko ditu kapitalismoak eta patriarkatuak azpiratutako Herri Langile guztiak.

Elkartasunik hoberena, Euskal Herria askatzeko mobilizazioa areagotzea da, Nafarroako Euskal Errepublika Sozialista eta Feministaren bidean. Hori da, hain zuzen ere, **HERRITAR BATASUNA**ko kide guztion konpromiso militantea. Aurrera Errepublika Katalan independentea! Borroka da bidea!

Visca Catalunya Lliure! Visca els Països Catalans lliures!  
Gora Euskal Herria askatuta, Errepublika Sozialista eta Feminista!  
*Sense desobediència no hi ha independència! Mobilització popular!*

Euskal Herrian, 2017ko irailaren 7an.

Herritar Batasuna

[www.herritarbatasuna.eus](http://www.herritarbatasuna.eus)

[www.herritarbatasuna.eus](http://www.herritarbatasuna.eus)

